

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Letizia andrea Printzesa Nafarroan izango da asteazken honetan, Foru Erkidegoaren lanbide-heziketako puntako esperientzien inguruan antolatutako jardunaldi monografiko batean parte hartzeko

*Lanaldia Imarkoingo Cenífer-en egingo da, eta LHko beste zentro nafar batzuetako ordezkari eta ikasleek parte hartuko dute*

Lunes, 05 de marzo de 2012

Asturias eta Vianako Printzesa Letizia andreak Nafarroa bisitatuko du datorren asteazkenean, martxoak 7, lanbide-heziketako arloan puntako esperientzien inguruan lanaldia bat egiteko xedearekin.

Lanaldia Imarkoainen (Noingo udalerrria-Elorz bailara) dagoen Energia Berriztagarrien Prestakuntzako Zentro Integratuan (Cenífer) egingo da, eta bertan, lanbide-heziketako eta etengabeko prestakuntzako zentro horretako zuzendaritza, irakasle eta ikasleek gain, lanbide-heziketako beste zentro nafar batzuetako irakasle eta ikasleek ere parte hartuko dute.



Letizia andrea, Vianako Printzesa Sarien banaketa-ekitaldian, iragan maiatzean.

Zehatzago, Nafarroako hiriburuan dauden lau zentrok Printzesari beren lana eta esperientzia berritzaileak erakutsiko dizkiote: Virgen del Camino Lanbide Heziketako institutua (teknologia berrietan espezializatua), Nafarroako Osasun Lanbide Heziketako institutua (ezintasuna duten pertsonen prestakuntza) eta Salesianoson zentroa (Foru Erkidegoko LHko dekanoa); bai eta Burlatan egoitza duen "Ibailde" Ostalaritzako Lanbide Heziketako zentroa ere.

Bisita goizen egingo da eta Cenífer-ek jardunaldi horretarako programatutako jarduera ez du etengo.